




## Etxebizitzen salmenta %20,8 handitu zen abuztuan

### Etxebizitzen salmenta EAEn

Urte bakoitzeko urtarriletik abuztura bitartean




Iturria: INE.

Abuztuan, etxebizitzen salmentak %20,8 egin zuen gora EAEn, aurreko urtearen aldean. Lehen zortzi hilabeteetako datu metatua saldutako 16.600 etxebizitzetatik igaro da, 2007tik, hots, Atzeraldi Handia eragin zuen higieziaren krisia piztu aurretik, izandako kopururik handiena baita.

## Etxebizitzen gaineko hipotekak %18,3 igo ziren

### Etxebizitzen gaineko hipotekak

Urte bakoitzeko urtarriletik abuztura bitartean




Iturria: INE.

Etxebizitzen salmentaren igoerari lotuta, abuztuan sinatu ziren etxebizitzen gaineko hipotekaren kopurua %18,3 hazi zen aurreko urtearen aldean. Aurtengo lehen zortzi hilabeteetan 15.600 hipoteka baino gehiago formalizatu ziren, azken hamaita urteetako kopururik handiena, baina aurreko garaietatik urrun dago kopuru hori.



## Industriako prezioek apaltzen jarraitzen dute

Industriako prezioen indizea  
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

**Irailean, IPRIk %20,9ko urte arteko tasa jaso zuen, abuztuko baino lau hamarren txikiagoa.** Hori horrela izanda, maitzean hasi zen moderazio leunarekin jarraitzen du, hileko horretan %29,6ko tasara iritsi baitzen. Energiaren prezioen igoera tasa (%47,7) urrun dago ekipamenduko ondasunek izan duten garestizetik (%3,6).

## Langabezia tasa %8,3ra jaitsi zen, INEren arabera

EAEko langabezia tasa  
Ehunekoak



Iturria: INE.

**BAIren arabera, langabezia tasa puntu erdi bat jaitsi da EAEn hirugarren hiruhilekoan, %8,3ra arte.** Beheranzko bilakaera hori Eustaten BJAk joan den astean iragarritakoaren oso antzekoa da, kasu horretan sei hamarren jaitsi baita %7,9ra arte. INEren inkestan, gizonen langabezia tasa %8,2 da, eta emakumeena, berriaz, %8,4.